

Arrospen. (Lenbiziko aldiz)

por Martxin LABAYEN

AZKENEAN... garaitu zaitut, Arrospen arkaitsua. Nik irabazi det zurekin neukan apustua. Irabazi? Bai ote? Bizi ontan, iñork ez du irabazten... Erioak ez al ditu beti zor guztiak ordeintzen? Eriotza, beti degu garaille, itxuraz beintzat.

Emen goian giro ederra dago, ezin ohea. Noski, Udara beroan gaude ta! Margo gorriak onak dira Udazkenerako ta elurra Negurako!

Belarrean exerita nago. Belarra, egia esateko, motxa da ta motela, berde berdea. Emen ta an, oso berta beintzat, lore ori txikiak, umillak ta kamomilla txuri usaintsua.

Eskubi aldean, arantzak ugari (Bizian bezela) bere lora aundi, eder, morearekin ta arkaitz beltz zorrotzak. Ez al dira ogi biurtuko?

Gose naiz. Ez da arritzekoa igoera aztuna izan da ta. Alde guzti guztietan, mendi, tontor, irpiñak kolore ta mota askokoak. Zer ikuskiñ zoragarria benetan!

Txindoki izugarria, Erniozabal, Uzturre, Otsabio borobilla, Aitzgorri urruna. Zeruan, odei illun ta urdiñ puskak ariñ ariñ dantzan. Dantza alaia benetan!

Pago gaxo batzuek ere ikusten dira, ta tontorrean dagon oroitari bakun, arrigarria, bere sutabe (Columna) puskatuarekin grezitar illobi bat dirudi. Ala ere ez da oso polita.

Nere ezkerrean, zelai borobill batean, ardi batzuek, bi edo iru zaldi gorri. Bere zintzarriak goxoki urratzen dute goiko ixiltasun ta Pake santua. Oztutzen ari da.

Zerua, lañuz illundua dago. Nere biotza ere bai. Dena or beran, ain dago naastua! Jainko maitea!

Berriz Tolosa beltz, itxusira jetxi bear det! Nere mendigoizale anaiak, zer pena!

Zerutik, Inpernura!

Ba noa, bai kezkaz beterik Tolosa aldera... Agur, Arrospeko ton-tor, argi, alai, eder, zoriontsu!

Zer bakarrik gelditzen zeran, artista aundiak bezela! Tolosa al-



dean, asko izan arren, bakar bakarrik bizi gera! Ain gera arro ta burukoiak!

Nere bidean, Txabol berri berria, berrigia, karebeltzez egindakoa. Ara artzai, mee, luze bat transistorearekin! Ori ere ikusi bearean gera!

Nun izkutatu dira gure txoritxo kantari paregabeak? An beian, txiki txikia, umilla (Oh mendiaren umiltasuna) Gaztelu osoa, parregarria, Gaztelu, nere bizi, nere alaitasun, nere zoriona!

«Goiko mendian bi pago, zeru polita gorago.»

Oskarbi. Taldeak sortutako abestia.